

XEDAPEN OROKORRAK

LEHENDAKARITZA

4703

HUTSEN ZUZENKETA, honako lege honena: «1/2013 Legea, urriaren 10ekoa, Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzkoa».

Oker material batzuk atzeman dira Bizialdi Osoko Ikaskuntzari buruzko urriaren 10eko 1/2013 Legearen testuan. Lege hori 2013ko urriaren 17ko EHAAan argitaratu zen, 199. zenbakian. Bada, zuzendu egiten dira oker horiek, testu honen arabera:

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Hau dioen tokian:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuan, IV. tituluan, beste kapitulu bat gehitzen da, IX.a, idazkera honekin:

IX. KAPITULUA. LANEKO ESPERIENTZIAREN BIDEZ EDO PRESTAKUNTZA BIDE EZ-FORMALEN BITARTEZ LORTUTAKO LANBIDE GAITASUNAK EGIAZTATZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA

95. sexies artikulua.– Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea da aholkularitzako eta gaitasunak ebaluatzeko zerbitzu teknikoak eskaintzea lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lortutako gaitasun profesionalak egiaztatzeke probetarako.

95. septies artikulua.– Sortzapena.

Tasa ordaindu beharra sortuko da zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak ematen diren unean. Alabaina, prozeduraren faseetako bakoitzean izena emateko orduan eskatuko da ordainketa, subjektu pasiboaren autolikidazio bidez.

95. octies artikulua.– Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

95. nonies artikulua.– Zenbatekoa.

Hauek izango dira tasaren zenbatekoak:

1.– Aholkularitza-fasean izena ematea: 24 euro.

2.– Lanbide-gaitasuna ebaluatzeko fasean izena ematea: 12 euro, gaitasun-unitate bakoitzeko.

95. decies artikulua.– Salbuespenak eta hobariak.

Tasatik salbuetsita egongo dira:

a) Langabeak, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda badaude eta orientazio-prozesu pertsonalizatu batetik pasata badaude.

2013ko urriaren 31, osteguna

b) Terrorismoaren biktima diren eskatzaileak, baldin eta kalte fisiko edo psikofisiko bereziki larriak jasan izana egiaztatzen badute; haien ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanarekin iraukorki bizi direnak, eta beraien seme-alabak».

Hau esan behar du:

«Euskal Autonomia Erkidegoko Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 11ko 1/2007 Legegintza Dekretuan, IV. tituluaren, beste kapitulu bat gehitzen da, X.a, idazkera honekin:

X. KAPITULUA. LANEKO ESPERIENTZIAREN BIDEZ EDO PRESTAKUNTZA BIDE EZ-FORMALEN BITARTEZ LORTUTAKO LANBIDE GAITASUNAK EGIAZTATZEKO ORDAINDU BEHARREKO TASA

95. decies artikulua.– Zergapeko egitatea.

Tasaren zergapeko egitatea da aholkularitzako eta gaitasunak ebaluatzeko zerbitzu teknikoak eskaintzea lan-esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide ez-formalen bitartez lortutako gaitasun profesionalak egiaztatzeke probetarako.

95. undecies artikulua.– Sortzapena.

Tasa ordaindu beharra sortuko da zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak ematen diren unean. Alabaina, prozeduraren faseetako bakoitzean izena emateko orduan eskatuko da ordainketa, subjektu pasiboaren autolikidazio bidez.

95. duodecies artikulua.– Subjektu pasiboa.

Zergapeko egitatea osatzen duten zerbitzuak eskatzen edo jasotzen dituzten pertsona fisikoak izango dira tasa honen subjektu pasiboak.

95. terdecies artikulua.– Zenbatekoa.

Hauek izango dira tasaren zenbatekoak:

1.– Aholkularitza-fasean izena ematea: 24,00 euro.

2.– Lanbide-gaitasuna ebaluatzeko fasean izena ematea: 12,00 euro, gaitasun-unitate bakoitzeko.

95. quaterdecies artikulua.– Salbuespenak eta hobariak.

Tasatik salbuetsita egongo dira:

a) Langabeak, baldin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan izena emanda badaude eta orientazio-prozesu pertsonalizatu batetik pasata badaude.

b) Terrorismoaren biktima diren eskatzaileak, baldin eta kalte fisiko edo psikofisiko bereziki larriak jasan izana egiaztatzen badute; haien ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanarekin iraukorki bizi direnak, eta beraien seme-alabak».